

HONI BURUZKO DOKUMENTUAK:
**2020-2021 ikasturtean Euskampus erakundeen artean Euskampus
Bordeaux ekimenak antolatzen laguntzeko programa**

**1. EUSKAMPUSEN WEBGUNEAN ARGITARATUTAKO
TESTUA**

**2020-2021 ikasturtean Euskampus erakundeen artean Euskampus
Bordeaux ekimenak antolatzen laguntzeko programa**

«Euskampus erakundeen arteko elkarlanak sendotu eta zabaltzeko programa»

Euskampus Bordeaux komunitateak izan duen azken hitzorduan, [Euskampus Bordeaux Eguna 2020](#)an iragarri zen bezala, [Euskampus Bordeaux Campuseko](#) kideok elkarlanean 10 urte beteko ditugun 2020-2021 ikasturtea askotariko topaketa, mintegi, bilera, solasaldi eta hedapen jarduerak antolatzeko baliatu nahi dugu, bai komunitatea bai Euskampuseko erakundeen arteko elkarlanen esparruak eta xedeak zabaltzeko ahal izateko.

2020-2021 urte hau *Euskampus Bordeaux Urte Nagusia* izendatu dugu eta jardueren askotariko programa bat izango dugu. Helburua honako alderdi hauek argi eta garbi sustatzea eta babestea da: benetako elkarlana, diziplina anitzekoa, diziplina artekoa eta diziplinaz gaindikoa; erronka zientifiko, teknologiko eta sozial handietara elkarrekin zuzentzea; jakintzaren aurrerapenean, ongizatean eta biz kalitatean, jasangarritasunean, ekitatean eta justizian ekarpenak egitea. Hala, lurraldean dugun presentzia indartzeko eta sustatzeko asmoa dugu, baita berau garatu dadin eta 2030erako Garapen Jasangarriko Helburuak lortu ditzan balioa emateko asmoa ere.

Horregatik guztiagatik, «**2020-2021 ikasturtean Euskampus erakundeen artean Euskampus Bordeaux ekimenak antolatzen laguntzeko programa**» martxan jarrita, Euskampus Bordeaux komunitateari proiektioa ematen lagunduko dioten topaketa eta jarduerak antolatzeko proiektuak aukeratzeko prozesu bat abiatu da, zeina 2020ko abenduaren 21etik 2021eko maiatzaren 31ra egongo baita irekita. Euskampus Fundazioak babestuko ditu, [Programaren xedapenetan](#) jasotako prozedurari eta irizpideei jarraituz. Ekimen horiek 2021eko urtarriletik ekainera egingo dira.

Programa horren bidez, **martxan dauden elkarlanak sendotzeko edo berriak aktibatuz** asmoa dago, **erakunde babesleerako ikerkuntza eta administrazio komunitateari askotariko topaketak eta jarduerak antolatzen lagunduz, Euskampus erakundeen artekoak ez ezik** –bai, ordea, lehentasunez–, beste erakunde batzuekin elkarlanean egindakoak ere bai, betiere, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko erakundeen artekoak badira eta gaitasun osagarriak ekartzen badituzte.

Inprimakia bete baino lehen, lehen aipatutako testuak arretaz irakurri behar dira.

Programari buruzko kontsultak helbide elektroniko honen bitartez egin ahalko zaizkio Euskampus Fundazioari: bordeaux@euskampus.eu.

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

2.- PROGRAMAREN TESTU OSOA

2020-2021 ikasturtean Euskampuseko erakundeen artean Euskampus Bordeaux ekimenak antolatzen laguntzeko programa (ikasle komunitateei, irakasle-ikertzaileei, Euskampuseko erakunde bazkideetako kudeatzaileei eta abarri zuzenduak).

Sarrera

2020-2021 ikasturtea oso garrantzitsua da Euskampus Bordeaux komunitatearentzat. 2010eko urrian, UPV/EHUK Tecnalía eta DIPCekin batera bultzatutako Euskampus-Nazioarteko Bikaintasun Campusaren proiektua onartu zela iragarri zen. 2010-2011 ikasturtean, Bordeleko Bikaintasun Ekimenaren (IdEx Bordeaux) proiektua ere aukeratu zen, orduko Bordeleko Ikerketako eta Goi Mailako Hezkuntzako Poloarena. Bi bikaintasun proiektuen esparruan, Euskadi-Akitania Euroeskualdean Mugaz gaindiko Nazioarteko Campus bat bultzatu nahi zen, goi mailako hezkuntzako, ikerketako eta berrikuntzako eremu partekatu gisa, eta 2014. urtean Euskampus Bordeaux Aliantzaren instituzionalizatu zen, aliantza hau UPV/EHUren eta Bordeleko Unibertsitate berrantolatu berriaren arteko hitzarmen baten bidez. Azkenik, ikasturte horretan bertan, Euskampus Fundazioa sortu zen, Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Campusa eta Euskampus Bordeaux Aliantza katalizatu zituen tresna.

Jada 10 urte igaro dira ekimena abiarazi zenetik, eta ibilbide horretan aurrerapen adierazgarriak egin eta emaitza zehatzak lortu dira, denborarekin hazten joan den komunitate indartsu baten inplikazioari esker (irakasle-ikertzaileak, administrariak eta proiektuen kudeatzaileak, ikasleen kolektiboak, lurralde eragileak, etab.), baina, orain, Euskampus Bordeaux Campusa etapa berri batean sartuko da eta horrek komunitate hori dinamizatzeko eta horren proiektuak antolatzeko planteamendu bat eskatzen du.

Irakasle-ikertzaileak, administrariak eta kudeatzaileak, ikasleen kolektiboak eta hainbat lurralde eragile nahasi dituen komunitate indartsu baten inplikazioari esker, aurrerapen adierazgarriak egitea eta emaitza zehatzak lortzea ekarri duen 10 urteko ibilbidea betetzera goaz

. Horregatik, 2018ko azaroan, UPV/EHUK eta Bordeleko Unibertsitateak Frantzia eta Espainiaren arteko lankidetzaren Diálogo saria irabazi zuten.

Azkenaldian, agerian geratu dira, batetik, Euskampus Bordeaux Aliantza sendoa dela, [ENLIGHT](#) Europako Unibertsitatearen planteamenduan izandako parte-hartze bateratu eta estuak indartuta betiere; eta, bestetik, komunitatea gogo, heldutasun eta exijentzia handikoa dela, urtetik urtera [Euskampus Bordeaux Egunean](#) adierazi duen bezala.

Orain, Aliantzako erakunde guztiok eta Euskampus Bordeaux Campusak (eremu komun gisa), lotura hori eta irakaskuntza eta ikerketaren arloetako elkarlana maila guztietan indartzeko eta dibertsifikatzeko lanean jarraituko dugu, ENLIGHT Europako Unibertsitateak markatutako ibilbidearekin bat egingo dugu eta gure lurraldeetako hainbat eragilerekin modu irekian lan egingo dugu, gure gizarte eragina areagotzeko, Garapen Jasangarriko Helburuen 2030 Agenda izanik esparru-etorkizuna.

Horregatik guztiagatik, [2020ko Euskampus Bordeaux Egunean](#) iragarri zen bezala, 2020-2021 ikasturtearen esparru paregabea (izan ere, Euskampus Bordeaux campuseko kideok elkarlanean 10 urte beteko ditugu) askotariko topaketak, mintegiak, bilerak, solasaldiak eta hedapen jarduerak egiteko baliatu nahi dugu, bai komunitatea bai Euskampuseko erakundeen arteko elkarlanen eremuak eta xedeak zabaldu ahal izateko. Honako alderdi hauek argi eta garbi sustatu eta babestu nahi ditugu: benetako elkarlana, diziplina anitzekoa, diziplina artekoa eta diziplinaz gaindikoa; erronka zientifiko, teknologiko eta sozial handietara elkarrekin zuzentzea; jakintzaren aurrerapenean, ongizatean eta biz kalitatean, jasangarritasunean, ekitatean eta justizian ekarpenak egitea. Hala, lurraldean dugun presentzia indartzeko eta sustatzeko asmoa dugu, baita berau garatu dadin eta 2030erako Garapen Jasangarriko Helburuak lortu ditzan balioa emateko asmoa ere.

2020-2021erako, Euskampus Bordeaux Urte Nagusiaren jarduera programa, eta topaketak eta jarduerak antolatzen laguntzeko moduak

Aro berri hau Euskampus Bordeaux Urte Nagusia deitu dugun 2020-2021 urte honetan bultzatu nahi dugun jardueren programa oparoan islatuko da. Ildo horretan, jarraian aipatuko ditugun hiru mugarriak proposatu ditugu, hau da, 2020ko urritik 2021eko uda-udazkenara bitartean komunitatea urrutitik, aurrez aurre edo modu hibridoan elkartzeko uneak, betiere edukierak bideragarriak izanik:

1. **2020ko urriaren 30a:** Euskampus Bordeaux Eguna 2020 (online formatua). Horri esker, gure Aliantzaren egoera ezagutu ahal izan genuen eta martxan dauzkagun askotariko elkarlanen pultsuari eutsi. Gainera, «txupinazo» gisa, «Euskampus Bordeaux Urte Nagusia» aurkeztu zen eta, hala, 2020-2021 ikasturtean egingo diren Euskampus Bordeaux jardueren «denboraldia» ireki zen.
2. **2020ko abendua-2021eko ekaina:** Euskampus Bordeauxeko askotariko kolektiboak laguntzea, topaketak, solasaldiak, mintegiak, tailerrak, hedapen jarduerak, etab. egin ditzaten. Martxan dauden elkarlanak finkatzea eta elkarlan berriak aktibatzea da helburua. Horretarako, komunitate akademikoarekin (ikasleen kolektiboak barne hartuta) eta administratiboarekin batera egingo da lan, eta, egokia den neurrian, gaitasun osagarriak emango dituzten Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko kanpoko askotariko eragileen partaidetza bilatuko da. Programa honen bidez babestuko diren jarduera eta topaketak, aurrez aurrekoak, birtualak edo hibridoak, Euskampuseko erakunde babesleetako langileek planteatu beharko dituzte (ikus xedapenak beherago).
3. **2021eko uda-udazkena:** Euskampus Bordeaux Eguna 2021, COVID-19ak eragindako pandemiaren bilakaeraren arabera egunean eta formatuarekin egingo dena, Euskampus Bordeaux Komunitatearen topaketa handia.

Programa horren bidez, **martxan dauden elkarlanak sendotzeko edo berriak aktibatzeko** asmoa dago, **erakunde babesleetako ikerkuntza eta administrazio**

komunitateari askotariko topaketak eta jarduerak antolatzen lagunduz, Euskampus erakundeen artekoak ez ezik erakunde babesleetako ikerkuntza eta administrazio komunitateari askotariko topaketak eta jarduerak antolatzen lagunduz, Euskampus erakundeen artekoak ez ezik.

Horregatik guztiagatik, Euskampus Bordeaux komunitateari proiektzioa ematen lagunduko dioten topaketa eta jarduerak antolatzeko proiektuak aukeratzeko prozesu bat abiatu da, zeina 2020ko abenduaren 21etik 2021eko maiatzaren 31ra egongo baita irekita. Euskampus Fundazioak babestuko ditu, programaren xedapenetan jasotako prozedurari eta irizpideei jarraituz. Ekimen horiek 2021eko urtarriletik ekainera bitartean egin beharko dira nahitaez.

3.- XEDAPENAK:

2020-2021 ikasturtean Euskampus erakundeen artean Euskampus Bordeaux ekimenak¹ antolatzen laguntzeko programaren xedapenak

I. – Parte har dezaketen erakundeak, ekimenen koordinazioa eta Euskampus Fundazioarekiko solaskidetza

1. Euskampus Erakundeei² eta horien kide diren Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sistemakoei (ZTBES) eta/edo Akitania Berrikoei –lehentasunez– eta/edo Nafarroakoei zuzenduta egongo da programa, baita beste leku batzuetakoei ere, kasu jakin batzuetan. Baina Euskampus Erakundeak bakarrik izango dira topaketa edo jardueraren onuradun zuzenak eta liderrak.
2. Topaketa proiektu bakoitzean gutxienez Euskampusen bi Erakundek parte hartu behar dute eta jardueraren diseinuari, antolatetari eta dinamizazioari dagokienez lidergo bateratuko formulak lehenetsiko dira.
3. Koordinatzaile bat baino gehiago baldin badaude, horietako bat Euskampus Fundazioarekiko solaskidetzaren burua izango da.

II. – Ekimenen ezaugarriak eta formatua

1. Honako hau joko da «Euskampus Bordeaux ekimen» delakotzat: gutxienez Euskampusen bi erakundek elkarrekin egindako edozein ekintza, elkarlanaren helburuak lortzeko balio duena, honako ekintzen kasuan:
 - Sareak sortzeko jardura (ikerketa, hezkuntza, jardunbide egokien trukatzea)
 - Proiektua eratzeko lehenengo pausoak
 - Langile trukeak (ikertzaileak, irakasleak eta laguntzaileak)
 - Euskampusen bi erakundeen arteko elkarlana sustatzen duen beste edozein ekintza, adibidez: askotariko topaketak (*workshop*ak, bilerak, mintegiak, etab.), askotariko hedapen jarduerak, askotariko elkarlan eremuak sustatzea – pertsonak epe mugatu batean mugitzea inplikatu dezakete–, etab. (zerrenda hau ez da zehatza eta proposamen guztiak banan bana aztertuko dira).
2. Topaketak aurrez aurrekoak, birtualak edo hibridoak izan daitezke.
3. Topaketen kasuan, formatua eta edukiera hautu librekoak dira, topaketak egitekoak eta/edo antolatzeakoak diren lekuan indarrean dauden osasun eta segurtasun protokoloak zorrotz betez gero.

III. – Topaketen iraupena

Topaketen iraupena hautu librekoa da, baina gehienez bi egunekoa izatea gomendatzen da; izan ere, hotel batean gau bat baino gehiago ematea aurreikusten bada (kostu hautagarria), Euskampus Fundazioak ezingo ditu kostuak bere gain hartu, behean –

¹Ikus definizioa II. puntuan.

² Euskampus Erakundetzat hartzen dira haren Patronatuko kide izanik ezagutza sortzen duten erakundeak: UPV/EHU, Tecnalia, DIPC eta Bordeleko Unibertsitatea.

«Euskampusek emango duen finantzaketa eta kostu hautagarriak» puntuan, aipatutako muga gainditzen badute. Finkatutako mugak gainditzen dituen edozein gastu antolatzaileen kontura izango da.

IV. – Topaketa egingo den tokia

1. Topaketak Akitania Berriko edo Euskadiko edozein tokitan egin ahal izango dira, baina topaketa Euskampuseko erakundeen instalazioetan kosturik gabe antolatzea gomendatzen da, aretoak alokatzeko kostuak ez baitira hautagarriak (ikus 6. artikulua).

V. – Euskampusek emango duen finantzaketa eta kostu hautagarriak

1. Euskampusek topaketa edo jarduera bakoitzeko gehienez ere 3.000 euro emango ditu laguntza gisa. Euskampusek babestuko dituen jardueren kopuru osoa aurrekontuaren eskuragarritasunak mugatuko du.

2. Finantzaketa dela erakundeek aurreratutako gastuak itzuliz (kostu hautagarriak jarraian), dela Euskampus Fundazioak fakturak zuzenean ordainduz emango da, antzeko egoeretako honako pauso hauei jarraikiz:

Jarraian agertzen den helbidea eta BEZ zenbakia jaso behar dira erakundeak zuzenean bere gain har ditzakeen elikadura gastuekin lotutako fakturretan:

- Helbidea: Euskampus Fundazioa

Errektoregoaren eraikina, Sarriena auzoa z.g.

48940 Leioa - Bizkaia – Espainia

- BEZ zenbakia: G95658688 (IFK)

Bi kasuetan, egiaztagiria eskatuko dira dirua itzuli edo gastuak ordaintzeko.

3. Zenbait gauzatze kostu ordaindu ahal izango dira, adibidez: bidaiak, ostalua eta mantenua, eta topaketak eta jarduerak egiteko materialak.

Bidaiei dagokienez, bidaia auto pribatuaren egiten bada, autoa partekatzea gomendatzen dugu, kostu osoa arazoizkoa eta jasagarria izan dadin.

Horrez gain, garraio bide publiko edo kolektiboko gastuak ere ordaindu edo lagunduko dira (aurrekontua aztertu ondoren).

Bi kasuetan (auto pribatu partekatua edo garraio bide publikoa; garraio bide publikoko enpresen zerrenda bat eman ahal izango dugu bidaia antolatzeko), kontuan izan antolakuntzak Bordele-Euskal Autonomia Erkidegoa perimetroaren barruko (Akitania Berria-Euskadi eskualdeak) bidaia kostuak hartuko dituela bere gain.

Oharra: Antolakuntzak ez ditu instalazioak alokatzearen gastuak estaliko. Mesedez, saiatu bi unibertsitateek utzitako instalazioetan kosturik gabe biltzen eta tailerrak egiten.

Aurrera jarraitzeko, mesedez, zure tailerra egin baino gutxienez 15 egun lehenago kalkulaturako kostuen gutxi gorabeherako aurrekontu bat bidali.

Aurrekontua balioztatu ondoren, Gastuak Itzultzeko Inprimakia bidaliko dizugu (bete beharreko jarraibideak barne) eta aipatutako txartel eta faktura guztiak erantsiz entregatu beharko da.

VI.- Proposamenak aurkezteko prozedurak

1. Ekimen proposamenak bidaltzeko gehieneko eguna 2021eko maiatzaren 31 izango da, «Eskara - Euskampus Bordeaux ekimenak antolatzen laguntzeko programa» online eskaera inprimakiaren bidez. Esteka honetan eskuratu daiteke: <https://forms.gle/TJVqWW6XVyE8euZP8>

2. Proposamenak gutxienez topaketa egiteko aurreikusitako data baino 3 aste lehenago bidaliko dira.
3. Ekimenaren antolaketari buruzko kontsultak egin ahal izango dira, xedapen hauek argitaratzen direnetik topaketa egin edo jarduera gauzatzen den arte, ahal dela posta elektronikoz, bordeaux@euskampus.eu helbidera idatziz, erreferentzia hau adierazita: **2021_euskampus_bdx / kontsultaren xedea**
4. Euskampus Fundazioak inprimakiaren bidez aurkeztutako proposamena egoki ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eskatu ahal izango dizkie erakunde parte-hartzaileei.
5. Inprimakian proposamenaren alderdi guztiak zehazten ez badira, alderdi interesdunari beharrezko informazioa osatzeko (ahal dela, posta elektronikoz) eskatuko zaio. Euskampus Fundazioak zehaztuko du zer epe dagoen horretarako (baina gutxienez 3 egun baliodun emango dira).
6. Programa honetara aurkezteak bere xedapenak onartzea dakar.

VII. – Aurkeztutako proposamenen ebaluazioa.

1. Proposamenak 2021eko urtarrilaren 15etik maiatzaren 31ra arte ebaluatuko ditu Euskampus Bordeaux-eko batzorde betearazleak. Batzordea aldizka bilduko da, jasotzen dituen eskaerei erantzuteko.
2. Ebaluazioa egiteko, bereziki honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - a) Proposamenaren kalitatea, adierazgarritasuna eta bideragarritasuna
 - b) Taldeen kalitatea, ibilbidea eta egokitasuna
 - c) Eskualdeko eta nazioarteko testuinguruan eta/edo identifikatutako *stakeholder*retan esperotako eragina, Euskampus Bordeaux campusaren garapenari dagokionez
 - d) Hainbat erakundetako taldeen integrazioa eta diziplinartekotasun maila
 - e) Jardueran graduako eta graduondoko ikasleak integratzea
 - f) Nahasitako pertsonen eta/edo onuradunen kopurua
 - g) Elkarlanaren eleaniztasuna eta kultura aniztasuna sustatzea
 - h) Aurrekontua jarduerara egokituta egotea, baterako finantzaketa eskema eta beste laguntza batzuen palanka proiektzioa, hala badagokio
3. Etengabeko ebaluazio prozesuaren ondorioz, hautagaiei beren proposamenak programaren laguntza jasoko duen edo ukatu egin zaion bakarrik jakinaraziko zaie.
4. Prozeduraren ebazteko eta interesdunei ebazpena jakinarazteko gehieneko epea 3 astekoa izango da, proposamenak jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

5. Kalkulatutako aurrekontua balioztatu ondoren, Gastuak Itzultzeko Inprimakia bidaliko da (bete beharreko jarraibideak barne) eta aipatutako txartel eta faktura guztiak erantsiz entregatu beharko da.
6. Programa honen bidez babestuko diren ekimenen publizitatea Euskampus Fundazioaren eta haren erakunde babesleen komunikazio euskarrietan egin ahal izango da ekimen horiek gauzatu baino lehen.

VIII. – Jarduera gauzatu ondoren Euskampus Fundazioari bidali beharreko entregagaiak

1. Jarduera gauzatu edo topaketa egiten denetik 10 eguneko epean, Euskampus Fundazioari jarduerari buruzko laburpen oso motz bat bidali beharko zaio (erreseina formatuan), argazkiekin batera (partaideen irudi eskubideak betez) eta horiek Euskampus Fundazioaren eta bere erakunde babesleen euskarrietan argitaratzeko erabili ahal izango dira.
2. Ekimena gauzatzen denetik 4 asteko epean, Euskampus Fundazioari honako hau entregatu beharko zaio: Aurkezpen bat (eta horren akta, topaketen kasuan), proposamenaren onarpenarekin batera entregatuko diren ereduak eta/edo aginduei jarraikiz. Material horiek hurrengo Euskampus Bordeaux Egunaren esparruan elkarlana aurkezteko gida gisa erabili ahal izango dira.
3. Entregagai horiek aurkeztearen mende egongo da sortutako gastuen itzulketa.

4.- ONLINE INPRIMAKIKO TESTUA

ESKAERARAKO ESTEKA:

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSektIMtkSoLkFoXmoeSRW4IbVII7qbMSZy2DthkCzRF6HABbA/viewform>

Oharra: Google Forms esteka batetik eskuratu ahal izango da web testuan eta xedapenak testu hedatuan. Inprimakia ingelesez bakarrik editatuta dago, baina 4 hizkuntzetako edozeinetan bete ahal izango da.